

Irailak 26, barikua

Iñaki Lagos, biolina
Maite Villate, pianoa



XIX eta XX.mende artean emakume konpositoreen gorakada gertatu zen. Familia eta musika sorkuntza uztartzeko izan zituzten zailtasunez gain, konplexutasun handiko obrak egiteko ezintasuna egotzi eta intuizio femeninoa deiturikoa gutxietsi egiten zen "arrazionaltasun maskulinoaren" aurrean.

Orduko sei konpositoreen piezak hartu ditugu gaur, omenaldia egin nahi diegu horrela gizonen menderatutako mundu batean sortzen jarraitu duten emakumeei

MAITE VILLATE OLAMENDI

Bilbon jaioa. Javier Hernándezen ikaslea izan da Juan C. Arriaga Kontserbatorioan. Piano eta Ganbera Musikako goi mailako titulua lortu eta 1996-1998 urteetan Graduondoa egin du Budapesteko F.Liszt Akademian.

Hainbat maisu-maistren ikastaroetan parte hartu eta Euskal Herriko zein Nazio arteko musika-jaialditan jo eta ganbera-talde desberdinetan parte hartu du. Gaur egun plazadun irakasle erreperetorista da Bilboko J.C.Arriaga Kontserbatorioan

IÑAKI LAGOS HERNANDEZ

Bilbon jaioa. J. C. de Arriaga Kontserbatorioan biolin ikasketak egin eta Jose Ramón Heviaren ikaslea izan da Oviedoko Goi Mailako kontserbatorioan. Rotterdams Conservatoriumean ikasi eta gero sakondu du formakuntza hainbat irakasleekin

Bilboko Orkestra Sinfonikoan, Euskadikoan eta beste batzuetan jo izan du. Ganbara taldeetan jo du biolin moderno zein barrokoarekin. Kontzertuak eman ditu Holanda, Frantzia eta Portugalen. Gaur egun irakaslea da Bilboko kontserbatorioan.

EGITARAUA

Emiliana de Zubeldia (1888-1987)

Zortzikoa
Haur kanta
Ijitoen koplak
Jota

Clara Schumann (1819-1896)

Hiru Erromantza op. 22
Andante molto
Allegreto
Apasionadamente rápido

Pauline Viardot (1821-1910)

Erromantza
Berceuse
Tarantella

Cécile Chaminade (1857-1944)

Rondó op.97
Andantino op.31, nº1
Capricho op.18

Amy Beach (1867-1944)

Barcarolle op.28
Invocation op.55
Erromantza

Lili Boulanger (1893-1918)

Udaberriko goiz batekoa
Nocturno
Segizioa